



## ITURENGO UDALA

(Nafarroa)  
31745

Jagoba Manterola Ruiz  
Marcelino Bazterrica Alchu  
Mikel Gereka Zelaia  
María Milagros Erreguerena Vera  
Carmelo Ayoroa Hualde  
Pedro José Alchu Ariztegui

2014ko apirilaren 3an, 19:30etan, Ohiko Osoko Bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. María José Bereau Baleztena — Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel José Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

### 1. AURREKO BILKURAKO AKTA ONETSI.

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera banatu zen aurreko Bilkurako aktari. Idazkariak azaldu ditu 4. puntuko 8. erabakia jakinarazteko izan diren arazoak eta erabakiaren testua irakurri du. Inork ez du azalpenik egin eta aho batez onartu da akta.

### 2. OBRAK EGITEKO LIZENTZIA ESKAERAK.

1. M.E.A.k idazkia aurkeztu zuen, 1 poligonoko 119 partzelan (lurzoru urbanizaezina) oilaskoak gizentzeko hegazti ustiatagia handitzeko eman zitzaion lizentzia luzatzeko eskatuz. 2010eko ekainaren 8ko alkatearen ebazpenean eman zitzaion lizentzia eta 2013ko ekainaren 19koan erabaki zen, obrak bukatzeko epea luzatzea urte baterako. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da, obrak bukatzeko epea luzatzea beste urte baterako, lizentziaren baldintzak mantenduz.

2. I.P.P.k lizentzia eskatu zuen, 18 metro karratuko arkupea eraikitzeko 2 poligonoko 925 partzelan daukan etxebizitzaren ondoan (lurzoru urbanizaezina). Kontutan hartuz Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitzako zuzendari orokorrak eman zuela etxebizitza eraikitzeko baimena (1172/2006 ebazpena) eta erabilera etxebizitzari lotua dagoela, aho batez erabaki da obrak egiteko lizentzia ematea P. andreari. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu beharko du obra hasi baino lehen. Obraren aurrekontua 5.420 eurokoa da eta ordaindu beharreko diru-kopurua, 162,60 euro.

3. J.A.E.k lizentzia eskatu zuen, 2 kurba zabaltzeko Amezti bidean eta ateratzen diren lur eta harriekin azpialdea betetzeko. Obra horiek lurzoru urbanizaezinean egin nahi direla kontutan hartuz, aldeko txostena ematea eta inguruaren gaineko eragin baimena eskatzea erabaki du Udalbatzak (4/2005 Foru Legearen 25. artikulua).

Milagros Erreguerena sartu da.

4. L.G.B.k lizentzia eskatu zuen *Alberroan* zenbait obra egiteko: 2 leiho ireki eta komuna eraiki beheko solairuan; lehenengo solairuan, komuna eta sukaldea berritu; ganbarako zola berritu. Leihoak irekitzeko aldeko txostena eman du Ondare Arkitektonikoaren Atalak. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da obrak egiteko lizentzia ematea G. andreari, lehen esandako txosten teknikoak aipatzen dituen baldintzak betetzeko baldintzapean. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu beharko du obra hasi baino lehen. Obraren aurrekontua 8.549 eurokoa da eta ordaindu beharreko diru-kopurua, 256,47 euro.

Marcelino Bazterricak ez du erabaki honetan parte hartu.



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

Baldintza hauek bete behar dira puntu honetan baimendu diren obrak egiterakoan:

- Hirigintzako tramitazioaren tasa ordaindu.
- Udal-araudiak jartzen duena bete.
- Hirugarrenen eskubideak errespetatu.
- Eskatu den obra baino gehiago ez egitea. Espediente zigortzailea irekiko zaie lizentziarik gabeko obrak egiten dituztenei eta emandako lizentzia betetzen ez dutenei.

### **3. ZUBIETA ETA ITURENGO UDALEN BATASUNA.**

Zubieta eta Iturengo Udalen Batasuneko biltzarra egin behar dela adierazi du idazkariak eta Iturengo Udalaren izenean joango diren ordezkariak hautatu dira: alkatea eta Jagoba Manterola.

Carmelo Ayoroa sartu da.

Gai zerrendaren ordena aldatzea erabaki da eta 5. puntua aztertu da jarraian.

### **5. ZENBAIT ESKAERA.**

1. J.A.U.J.k baimena eskatu zuen, 2 erlategi jartzeko 2 poligonoko 300 partzelan. 209/2002 Errege Dekretuaren 8. artikulua irakurri ondoren, aho batez erabaki da baimena ukatzea, gutxieneko distantzien baldintzak ez direlako betetzen.

Pedro José Alchu eta Mikel Gereka sartu dira.

2. E.G.A.k idazkia bidali zuen, ondoko hau adieraziz funtsean: Kontseilu kalearen estutasunak arriskuak sortzen ditu, *Maizenea* etxeko balkoia jo bai dute kamioi batzuk; arrisku hori sahisteko, piboteak jarri ditu espaloian eta horiek mantentzeko baimena eskatu du. Piboteak berehala kentzeko agindua eman zitzaion martxoaren 3an eta ez ditu kendu. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da G. andreari jakinaraztea ondoko hau:

- 15 eguneko epea ematen zaio, baimenik gabe jarri dituen piboteak kentzeko. Ez baditu epe horretan kentzen, Udalak kenduko ditu eta gastuak G. andreari kobratuko zaizkio.
- Herrilan Zuzendaritzari eskatutako txostena iristen denean, Udalak erabakiko du zer egin, zeharbideko trafiko-arazoak konpontzeko.
- Seinalea jarriko da herriko sarreran, altuera txikiko balkoiak daudela ohartarazteko.

3. M.A.O.k idatzia aurkeztu zuen eduki honekin: *Arriberria* etxearen aurrean putzua egiten da eta ura bere etxeko atean erortzen da; hori ez gertatzeko, zati horretan dagoen porlana konpontzeko baimena eskatzen du. Eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da kalea konpontzeko baimena ematea A. jaunari, gastua berak ordaintzen badu.

4. S.B.B.k baimena eskatu zuen *Ormatzan* erori diren 4 arbol aprobetxatzeko. Mendizainak egindako balorazioa ikusi ondoren, aho batez erabaki da B. jaunari saltzea arbolak, 19,57 eurotan.



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

Alkatea abstenitu egin da bozketan.

5. V.B.M.k baimena eskatu zuen *Teilerian* erori den haritza aprobetxatzeko. Mendizainak egindako balorazioa ikusi ondoren, aho batez erabaki da B. jaunari saltzea arbola, 8,21 eurotan.

6. Jarraian, J.J.E.V.k aurkeztu zuen idazkia irakurri du idazkariak. *Apeztegia* etxeo bigarren solairuan egiten ari diren obrak teknikari batek ikuskatzea eskatu zuen. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da J.J.E.ri jakinaraztea ondoko hau:

- 2014ko martxoaren 14ko Alkatetzako-Ebazpenean eman zitzaion lizentzia R.U.ri, sukaldea eta komuna berritu eta gelako paretak igeltsutzatzeko.
- Obra horiek ez dute etxearen egitura ukitzen.

Milagros Erreguerenak ez du erabaki honetan parte hartu.

7. *Aurtizko Ostatuko* terrazaren azpian sortu diren hezetasunei buruz hitz egin dute gero. Arazo hori berehala konpontzea erabaki da.

#### **4. MALERREKAKO EGUNA.**

*Malerrekako Eguneko* egitaraua azaldu du Mikel Gerekak. Harrera ekitaldira eta lekukoa pasatzeko ekitaldira Udal-ordezkariek joatea garrantzitsua dela esan du eta joateko konpromezua hartu behar dela. Joaldunen merienda prestatzeko ardura Iturengoa izanen da. Mus txapelketa ere antolatu beharko da herrian.

#### **6. ALKATETZAREN EBAZPENAK.**

Alkateak emandako ebazpen hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza: 2014ko otsailaren 11koa, lizentzia eman ziona J.M.A.ri, etxebizitza lehen aldiz erabiltzeko eta okupatzeko; 2014ko martxoaren 14koa, R.U.ri lizentzia eman ziona, *Apeztegia* etxearen barruan obrak egiteko; 2014ko apirilaren 1ekoa, lizentzia eman ziona J.A.L.ri, etxebizitza lehen aldiz erabiltzeko eta okupatzeko; 2014ko apirilaren 1ekoa, *Gorostibiaenea* etxeo fatxadak birmoldatzeko lizentzia eman ziona A.E.i.

#### **7. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.**

1. Maiatzaren 25ean ospatuko dira hauteskundeak Europako Parlamenturako eta hauteskunde-prozedurari buruzko azalpen batzuk eman ditu idazlariak.

2. Iturengo Udalaren Plan Orokorra baliogabetzearen ondorioak aztertzeko, Nafarroako Gobernuan izandako bileraren berri eman da (2014ko martxoaren 14ko bilera). Nafarroako Auzitegi Nagusiak martxoaren 18an eman zuen autoaren berri eman du idazkariak: Promociones Lindutx Baztán SLeK jarritako baliogabetasun-intzidentea ezetsi zuena.

3. Latsagako UE 2 unitatea urbanizatzeko plano berria eman diotela esan du alkateak. Plano berri honek aldatzen ditu, P.M.E.ri etxebizitza eraikitzeko emandako lizentziaren baldintzak. Gaia aztertzeko bilera egitea erabaki da, 1 poligonoko 11 partzelako jabearekin eta UE 2ko sustatzaileekin.



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

4. Agiri hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza: larreak erretzeko baimenak —I. B., L.M., A.G., M.M. eta J.I.V.ri—; Nafarroako Gobernuak eman dituen baso-aprobetxamenduko baimenak —M.J.B., J.M. eta A.E.ri—; Nafarroako Gobernura bidali diren baso-aprobetxamenduko baimen eskaerak —J.A.A. eta J.A.U.nak—; Abeltzaintzako zerbitzuak bidali dituen Esplotazioen Erregistroan izandako mugimenduak —M.C.A. eta J.I.V.ren bajak—; Herri eta Lan Osasuneko Institutuak egindako ur-analisen emaitzak; Cederna-Garalurreko kuoten murrizketa; Kantauriko Ur-Konfederazioaren Ebazpena, 2014ko martxoaren 3koa, J.M.I.ri baimena eman ziona igogailua eraikitzeko 2 poligonoko 65 partzelako etxebizitzan; R.U.O.k aurkeztu zuen idazkia, *Apeztegia* etxeko sotoan daukan zerrari buruz.

5. Alkateak hitza hartu du, Elizondoko komisaldegiko buruarekin bilera izan zuela azaltzeko. Bileran aztertu ziren gaiak: zonaldeko *mapa delikuentziala* eta Iturengo plazaren itxitura.

6. Plazaren itxiturari buruz eztabaidatu da gero eta aho batez erabaki da:

- egurrezko bankuak jartzea plaza itxitzeko.

- Autoak sartzeko sarrera bakarra uztea, anbulantzia eta suhiltzaileei mugatua.

Seinalea jarriko da, salbuespen horretatik kanpo, autoen sarrera debekatzeko.

7. Aurreko urteetako errezibo kopuru bat ordaindu gabe dagoela ikusirik, aho batez erabaki da, zorrak premiamendu-bidean kobratzeko zerbitzua kontratatzea Geserlocal enpresarekin. Bando bat bidaltzea erabaki da ere, gai honi buruz informatzeko eta premiamendu-prozedurako neurriak zeintzuk diren jakinarazteko: errekarguak (%10, %20), interesak, enbarguak, etab.

8. Alkateak adierazi du F.G.rekin hitz egin zuela, Aurtizko UB 9an eman gabe utzi zuen lurrari buruz. Proposamen bat aurkeztu behar zuela esan omen zion eta idatziz egiteko esan ziola aipatu du alkateak.

## **8. HERRIAREN TXANDA.**

Ez da galderarik egin.

Eta bertzerik ezean, 22:50ak direnean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.